

Heriotzak %15,6 gutxitu ziren 2023ko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEn


Jaitsiera hori uztailan kontzentratu zen, heriotzak %30,9 gutxitu baitziren

2023ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 5.099 pertsona hil ziren, aurreko urteko aldi berean baino %15,6 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

Abuztuan eta irailean heriotzak %9,2 eta %2,6 jaitsi ziren, hurrenez hurren, aurreko urteko hil berdinen aldean. Baina benetan nabarmentzekoa uztaila da, hilabete horretan %30,9ko jaitsiera izan zen eta. Gogoratu behar da 2022ko hirugarren hiruhilekoan heriotza kopurua nahiko handia izan zela. 2023ko hirugarren hiruhilekoko datuak 2019ko hiruhileko bereko datuekin alderatuz gero (COVID-19aren pandemiaren aurreko urtea), %2,8ko igoera gertatu da.

COVID-19ak 121 heriotza eragin zituen, 2022ko hiruhileko berean baino 253 gutxiago.

Defunciones de residentes en la C.A. de Euskadi por mes



Fuente: Eustat. Estadística de Defunciones

Hiru lurraldeetan jaitsi ziren heriotzak; bereziki esanguratsua izan zen Bizkaian izandako jaitsiera, %18,1ekoa, 2.735 heriotzarekin; Araban %14,2koa izan zen, 652 hildakorekin, eta Gipuzkoan %11,8koa, 1.712 heriotzekin. Sexuen arabera, 2.576 gizon eta 2.523 emakume hil ziren; hau da, %11,9ko jaitsiera izan zen gizonen kasuan eta %19koa emakumeen kasuan.

Bigarren hiruhileko honetako heriotzen artean, 9 urtebetetik beherakoak izan ziren (%0,2) eta 91 ehun urtetik gorakoak (%1,8), gehienak emakumeak (83 emakume).

insertatabla_19529

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren, 1.519 eta 1.158 heriotza eragin baitzituzten, hurrenez hurren, eta, ondorioz, bien artean heriotzen %52,5 izan ziren. Hirugarren heriotza-kausa nerbio-sistemako gaixotasunak izan ziren, 339 heriotzarekin (%6,6). 121 heriotzatan (%2,4) COVID-19a izan zen kausa nagusia.

Hiruhileko honetan, heriotzen arrazoi nagusia tumoreak izan ziren, bai gizonentzat, bai emakumeentzat. Hala ere, tumoreen ondoriozko heriotzen ehunekoa handiagoa izan zen gizonentzat (%35,3), eta emakumeentzat, berriz, %24,1ekoa. Zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren kausa nagusia 551 gizonentzat eta 607 emakumerentzat, %21,4 eta %24,1, hurrenez hurren.

insertatabla_21234

Euskal AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen 2023ko hirugarren hiruhilekoan, 1.621 pertsona gutxiago. Hiru lurraldeetan galdu da biztanleria-galera arrazoi horrengatik: Bizkaian 972 pertsona, Gipuzkoan 562 eta Araban 87.

COVID-19aren ondoriozko heriotzak 121 izan ziren 2023ko hirugarren hiruhilekoan, ia %68ko jaitsierarekin

COVID-19ak 121 heriotza eragin zituen, 2022ko hiruhileko berean baino 253 gutxiago (-%67,6). Heriotza horiek guztiak baieztatutako COVID-19agatik izan ziren; gainera, beste 36 heriotzatan COVID-19a heriotza-kausa ziurtatuen artean egon zen, baina funtsezko kausa izan gabe.


insertatabla_19528

Lurraldeka, zifrarik altuena Bizkaiari dagokio (82), gero Gipuzkoari (30) eta, azkenik, Arabari (9). Hiriburuei dagokienez, Bilbo da nagusi, 30 heriotza eragin baititu COVID-19ak; ondoren, Donostia (11) eta Gasteiz (7). Beste udalerrri aipagarri batzuk Barakaldo (7 heriotza) eta Getxo (6) dira.

Emakumeen heriotza-kopuruak (61) gizonena (60) gainditu zuen, eta, adinaren arabera, eragin handiena izan zuen taldea 80 urtetik gorakoena izan zen, COVID-19ak eragindako heriotzen %78,5 (95 heriotza) izan baitziren.

Heriotza gehienak EAEko ospitaleetan izan ziren (%81,8, eta 2022ko hirugarren hiruhilekoan %82,6), gero egoitza soziosanitarioetan (%9,9, 2022ko hirugarren hiruhilekoan %7,8) eta azkenik etxebizitzetan (%8,3, 2022ko hirugarren hiruhilekoan %9,6).

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62